

Euskal AEko ondasunen esportazioek % 36,0 egin dute behera 2020ko maiatzean

2020ko lehen bost hilotan, esportazioek % 24,7ko atzerapena izan dute aurreko urtearen aldean, baina euskal kanpo-merkataritzak oraindik 1.551 milioi euroko superabit soldata du

Euskadiko AEko **ondasunen esportazioek** % 36,0ko beherakada izan zuten, urte arteko tasa nominalean, Eustatek emandako datuen arabera. 1.560,3 milioi euro izan ziren eta, aurreko urteko hil berean, 2.439,7 milioi. Ondasun *energetikoen* esportazioek % 45,5eko beherakada izan zuten, eta *ez-energetikoenek*, % 35,3koa.

Hiru lurralde historikoek aurretik aipatutako joerari eusten diote, antzeko ehunekoekin, baina Bizkaian pixka bat nabarmenagoa da; izan ere, % 37,7ko atzerapena izan du. Ondoren Gipuzkoa (–% 35,5) eta Araba (–% 34,5) daude. Atzeraldi horiek Araban “Garraio-materiala”ren mugazergen sekzioarekiko mendekotasunaren ondorio dira, eta, Bizkaian, “Produktu mineral eta energetiko”ekin duen loturaren ondorio.

Euskal AEko ondasun kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. 2020 Maiatza

	ESPORTAZIOAK			IMPORTAZIOAK		
	Maiatza			Maiatza		
	2019	2020	Δ %	2019	2020	Δ %
EUSKAL AE						
HILEAN GUZTIRA	2.439.737	1.560.278	-36,0	1.903.044	1.069.263	-43,8
PRODUKTU ENERGETIKOAK	168.783	92.020	-45,5	522.934	119.709	-77,1
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	2.270.954	1.468.257	-35,3	1.380.110	949.555	-31,2
URTEKO METATUA	10.845.724	8.170.754	-24,7	8.796.860	6.619.536	-24,8
PRODUKTU ENERGETIKOAK	860.691	500.994	-41,8	2.352.806	1.445.592	-38,6
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	9.985.033	7.669.761	-23,2	6.444.055	5.173.944	-19,7
ARABA / ÁLAVA						
HILEAN GUZTIRA	692.092	453.032	-34,5	365.841	232.624	-36,4
URTEKO METATUA	3.051.058	2.278.760	-25,3	1.805.493	1.399.578	-22,5
BIZKAIA						
HILEAN GUZTIRA	928.853	578.962	-37,7	1.118.933	560.819	-49,9
URTEKO METATUA	4.144.783	3.185.791	-23,1	5.087.518	3.748.013	-26,3
GIPUZKOA						
HILEAN GUZTIRA	818.793	528.284	-35,5	418.270	275.820	-34,1
URTEKO METATUA	3.649.883	2.706.204	-25,9	1.903.849	1.471.946	-22,7

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

Euskadiko AEko **ondasunen inportazioek** –1.069,3 milioi euroko zenbatekoa– % 43,8 egin zuten behera, 2019ko maiatzaren aldean. Inportazio *energetikoen* % 77,1 egin zuten behera (–% 40,3, baldin eta inportatutako tonak aintzat hartzen baditugu), eta *ez-energetikoen*, % 31,2. Lurralde-mailan, beherakadarik handiena Bizkaian erregistratu da (% 49,9), gero Araban (% 36,4) eta, azkenik, Gipuzkoan (% 34,1).


Saldo komertziala positiboa izan zen, 491 milioi euro ingurukoa. Zifra horrek superabit komertzialean % 8,5eko beherakada erakusten du, aurreko urteko aldi beraren aldean (536,7 milioi). Saldo komertzial “ez energetikoa” bakarrik aztertuta egiaztatzen da hura ere positiboa izan

dela, eta 518,7 milioi eurotara iritsi dela; alegia, aurreko urtekoarekin alderatzen badugu (890,8 milioi), % 41,8ko beherakada.

Inportazioen gaineko esportazioen **estaldura-tasa** ehuneko 17,7 puntu handitu da, eta % 128,2koa izatetik % 145,9koa izatera igaro da. Tasa bera izan dute produktu “ez-energetikoek”; % 164,5etik % 154,6ra igaro dira.

Hil honetan, hamar herrialdetan –Alemania, Frantzia, Estatu Batuak, Erresuma Batua, Italia, Belgika, Portugal, Herbehereak, Polonia eta Txina– esportazioen % 68,5 metatu da. Gehienak EB-27ren barruan daude; erakunde horretan, 1.003,1 milioirekin, Euskadiko AEren ondasunen salmentaren % 64,3 kontzentratzen da.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera



ESPORTAZIOEN ANALISI SEKTORIALA (2020KO MAIATZA)

Jarduera-adarrak (A86) aztertuta, kategoria gehienetan itzulera esportatzailerako joera ikusten da; hala, haietako 5etan –guztira 48– baino ez dira erregistratzen igoerak –intentsoak edo ez hain intentsoak–. 10 garrantzitsuenetatik, bat baino ez da hazi aurreko urteko hil beraren aldean, “*Kokeriak eta petrolioa fintzea*”, % 4,2 hazi da (91,9 milioi esportatu). Gainerako kasuetan, ehunekoak negatiboak izan dira, besteak beste: “*Siderurgiak*” % 22,4, eta “*Kautxuzko produktuak*” % 45,0.

Dagoeneko aipatutako kategoriaren beherakadaz gainera, itzulera esportatzailearen tamaina dela eta, honako adar hauek nabarmentzen dira: “*Ilbilgailu motordunen fabrikazioa*” (–% 42,5 eta 335,2 milioi esportatu); “*Material eta ekipa elektrikoa*” (–% 35,8 eta 71,9 milioi), “*Gai metalikoak*” (–% 35,6 eta 127,5 milioi), “*Burdinazkoak ez diren metalen ekoizpena*” (–% 34,0 eta 58,9 milioi),

“Erabilera orokorreko makineria” (–% 25,9 eta 181,0 milioi), “Beste garraio-material bat” (–% 25,2 eta 112,3 milioi), eta “Paperaren industria” (–% 25,4 eta 40,751,3 milioi).

Euskal AEko muga-zergen partida esportatzaile nagusiak. Milaka euro (p). 2020ko Maiatza

	2019	2020	2020 %	2020/2019 (%)
GUZTIRA	2.439.737	1.560.278	100	-36,0
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	228.476	165.880	10,6	-27,4
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	170.058	96.367	6,2	-43,3
Petrolioaren olio finduak	69.143	86.744	5,6	25,5
Automobilentzako zati eta osagarriak	151.153	60.497	3,9	-60,0
Kautxuzko pneumatiko berriak	87.614	46.839	3,0	-46,5
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetarako	92.085	40.294	2,6	-56,2
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	18.012	34.000	2,2	88,8
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	48.614	33.000	2,1	-32,1
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	43.020	32.609	2,1	-24,2
Hodi eta profil hutsak, soldadurarik gabeak, burdina edo altzairuzkoak	38.735	32.608	2,1	-15,8
Erremintetarako tresna trukagarriak	35.494	31.843	2,0	-10,3
Burdina edo altzairuzko gainerako enbriak	32.922	24.939	1,6	-24,2
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak	21.765	22.762	1,5	4,6
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafak eta tirak	38.758	21.140	1,4	-45,5
Productos planos laminados, de hierro o acero sin alear, sin chapar ni revestir, de una anchura inferior a 600 mm	6.529	17.162	1,1	162,9
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	19.474	16.146	1,0	-17,1
Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	18.001	15.134	1,0	-15,9
Aireontzien parteak	13.967	14.440	0,9	3,4
Metal arrunteko giltzarriak, sarraila, morroilo eta giltzak	17.941	13.702	0,9	-23,6
Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrakeak...	16.800	13.371	0,9	-20,4
Ardoa, mahats freskoarena	15.425	13.105	0,8	-15,0
Motor eta sorgailu elektrikoak (ekipo elektrogenoak izan ezik)	14.054	12.947	0,8	-7,9
Beroan ijeztutako produktu lauak, aleatu gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak, 599 mm-tik gorako zabalerakoak	9.393	12.150	0,8	29,3
Kraft papera eta kartoia, iztukatu edo estali gabea, bobina edo orritan	13.259	12.127	0,8	-8,5
Kobre findu gabe; fintze elektrolitikoak kobre anodoak	12.348	11.600	0,7	-6,1

(p)Behinbehineko datuak

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

2020ko maiatzean, 25 muga-zergen partida nagusietatik, 6 hazi egin dira eta 19k murrizketak izan dituzte, aurreko urteko aldi beraren aldean.

Aldi horretan euskal esportazioaren bi partida garrantzitsuenak “10 pertsona baino gutxiagoko turismoak” eta “Salgaiak garraiatzeko automobilak” izan dira. Lehenengoak 165,9 milioi izan ditu, eta hilaren guztizkoaren % 10,6, % 27,4 egin baitu behera; bigarrenak % 43,3ko beherakada izan du eta, kasu horretan, esportatutako 96,4 milioien ondorioz guztizko beraren % 6,2.

“Petrolioaren olio finduak” gora egin eta ranking esportatzailearen hirugarren posizioan daude; % 25,5eko gorakada izan dute, eta salmentak 86,7 milioi eurokoak izan dira.

Eskala horretako hurrengo partida “Automobilentzako zati eta osagarriak” izan da, eta % 60,0 egin du atzera. “Kautxuzko pneumatiko berriak” % 46,5 egin dute behera, eta “Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetarako” partidak, % 56,2; hala, rankingaren seigarren posizioan dago.

Ranking horretan eta zentzu positiboarekin, honako partida hauen hazkuntza garrantzitsuak aipa daitezke: “Produktu lau laminatuak, burdinazkoak edo altzairuzkoak aleatu, xafatu eta estali gabe, 600 mm-tik beherakoak” (% 162,9) eta “Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak” (% 88,8).

ARABA. Esportazioak 2020ko maiatzean

Arabako Lurralde Historikotik egin den esportazioak % 34,5 egin du atzera. Hamar partida nagusiek (guztizkoaren % 74,2) hazkunde-tasa negatiboak izan dituzte, eta nabarmentzekoak dira, duten garrantziagatik, automobilgintzaren sektorearekin zerikusia dutenak: “Automobilentzako zati eta osagarriak” (–% 65,2), “Kautxuzko pneumatiko berriak” (–% 48,7), “Salgaiak garraiatzeko automobilak” (–% 43,3) eta “10 pertsona baino gutxiagoko turismoak” (–% 28,6).

Arabako lurralde historikoko muga-zergen partida esportatzaile nagusiak. Milaka euro (p). Maiatza 2020

	2019	2020	2020 %	2020/2019 (%)
GUZTIRA	692.092	453.032	100	-34,5
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	225.067	160.640	35,5	-28,6
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	169.812	96.357	21,3	-43,3
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	21.254	17.876	3,9	-15,9
Kautxuzko pneumatiko berriak	30.984	15.893	3,5	-48,7
Ardoa, mahats freskoarena	14.078	12.002	2,6	-14,7
Aireontzien parteak	12.702	9.605	2,1	-24,4
Automobilentzako zati eta osagarriak	20.516	7.129	1,6	-65,2
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	10.171	6.750	1,5	-33,6
Metal arruntezko ontzietarako tapoiak, tapak eta beste osagarri batzuk	8.173	5.820	1,3	-28,8
Altzairu herdoilgaitza, lingotetan edo bestelako forma primarioekin	6.414	4.283	0,9	-33,2

(p)Behinbehineko datuak

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

BIZKAIA. Esportazioak 2020ko maiatzean

Bizkaian esportazioek % 37,7 egin dute behera. Fenomeno horretan honako partida hauek dute eragina, batez ere: “Automobilentzako zati eta osagarriak” (–% 57,1 eta 32,0 milioiko beherakada), “Kautxuzko pneumatiko berriak” (–% 45,6 eta 25,5 milioiko beherakada) eta “0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xaflak eta tirak” (–% 48,6 eta 15,8 milioiko beherakada). Nabarmenezkoa da “Petrolioaren olio findu”en joera ona, % 25,8ko hazkuntza izan baitute, bai eta “Produktu lau laminatuak, burdinazkoak edo altzairuzkoak aleatu, xaflatu eta estali gabe, 600 mm-tik beherakoak” partidarena ere (% 168,2).

Bizkaiko lurralde historikoko muga-zergen partida esportatzaile nagusiak. Milaka euro (p). Maiatza 2020

	2019	2020	2020 %	2020/2019 (%)
GUZTIRA	928.853	578.962	100	-37,7
Petrolioaren olio finduak	68.804	86.545	14,9	25,8
Eskuzko erremintatarako tresna trukagarriak edo makina-erremintatarako	30.066	30.745	5,3	2,3
Kautxuzko pneumatiko berriak	56.023	30.474	5,3	-45,6
Automobilentzako zati eta osagarriak	56.049	24.041	4,2	-57,1
Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko produktu plano ijestuak, txapatu edo estali gabekoak, 600 mm-tik beherako zabalerakoak	6.390	17.140	3,0	168,2
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xaflak eta tirak	32.607	16.759	2,9	-48,6
Altzairu herdoilgaitzezko barra eta profilak	16.677	14.070	2,4	-15,6
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	16.453	13.699	2,4	-16,7
Burdina edo altzairuzko gainerako manufaktura	14.486	12.871	2,2	-11,1
Beroan ijestutako produktu lauak, aleatu gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak, 599 mm-tik gorako zabalerakoak	9.343	12.063	2,1	29,1

(p)Behinbehineko datuak

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

GIPUZKOA. Esportazioak 2020ko maiatzean

Gipuzkoak ere narriadura esportatzailea izan du hilabete honetan, gainerako lurralde historikoek bezala (–% 35,5); eta ez da harritzekoa, baldin eta kontuan hartzen badugu bere hamar partida esportatzaile nagusietako zazpi atzera egin dutela, aurreko urteko hil beraren aldean. Nabarmenezkoak dira honako partida hauen beherakadak: “Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropultsatuetarako” (–% 56,2 eta 51,8 milioiko beherakada), “Automobilentzako zati eta osagarriak” (–% 60,7 eta 45,3 milioiko beherakada) eta “Aleatu gabeko burdinazko edo altzairuzko profilak” (–% 33,1 eta 15,1 milioiko beherakada).

Joera positiboak izan dituzte honako hauek: “Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak”, % 97,4ko igoera nabarmena izan baitu (15,8 milioiko igoera) eta “Paper-orea, papera edo kartoia lantzeko gainerako makinak, ebakigailuak barne” (% 644,9 eta 8,7 milioi gehiago).

Gipuzkoko lurralde historikoko muga-zergen partida esportatzaile nagusiak. Milaka euro (p). Maiatza 2020

	2019	2020	2020 %	2020/2019 (%)
GUZTIRA	818.793	528.284	100	-35,5
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetaarako	92.085	40.294	7,6	-56,2
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	16.185	31.950	6,0	97,4
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	45.637	30.544	5,8	-33,1
Automobilentzako zati eta osagarriak	74.588	29.326	5,6	-60,7
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	29.892	23.859	4,5	-20,2
Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak...	18.997	18.783	3,6	-1,1
Metal arruntezko giltzarrapo, sarraila, morroilo eta giltzak	17.051	13.146	2,5	-22,9
Burdina edo altzairuzko gainerako enbaturak	16.974	11.319	2,1	-33,3
Ontziak eta paketatze aparatuen garbitze, betetze, iteko, etiketatze makinak	10.324	10.357	2,0	0,3
Paper ore, papera edo kartoia lantze gainerako makinak, ebakigailuak barne	1.348	10.039	1,9	644,9

(p)Behinbehineko datuak

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika (KAMEE)

URTEKO METATUA (2020KO LEHEN BOST HILABETEAK): kanpo-saldoak 1.551 milioi euroko superabita izan du, eta estaldura-tasa % 123,4koa da

2020ko lehen bost hilotan, Euskadiko AEko **esportazioek** % 24,7ko beherakada izan dute, aurreko urteko aldi beraren aldean, alegia, 2.675 milioi euro gutxiago. Aldi horretan zenbateko esportatzailea 8.170,8 milioikoa da, eta kopuru horri Bizkaiak egiten dio ekarpenik handiena, 3.185,8 milioikoa (guztizkoaren % 39,0), gero Gipuzkoak (2.706,2 milioi) eta, ondoren, Arabak (2.278,8 milioi).

Bizkaiko esportazioak Euskadiko AEko garrantzitsuenak dira, nahiz eta urte arteko beherakada % 23,1koa izan (2019an baino 959,0 milioi gutxiago). Araban, beherakada % 25,3koa izan da (772,3 milioi gutxiago) eta Gipuzkoan, % 25,9koa (943,7 milioi gutxiago). Esportatutako produktumota aintzat hartuta, egiaztatzen da "Produktu ez-energetikoak" (2.315,3 milioi gutxiago) direla aurretik aipatutako beherakada hori kontzentratzen dutenak, baina "energetikoek" ere atzera egin dute (359,7 milioi).

2020ko lehen bost hiletan gehien saldu diren hamar produktuek (muga-zergen partidak) guztizkoaren % 39,6 kontzentratzen dute, 3.237,8 milioiko zenbatekoarekin. Horiek guztiek beherakadak izan dituzte 2019ko aldi beraren aldean. Beherakada horietako gehienak 50 milioi eurotik gorakoak dira, eta haietako bost nabarmendu behar dira, 100 milioi euro baino gehiagoko beherakadak izan baitituzte, eta lauk 240 milioi baino gehiagokoak. Zehazki, automobilgintzarekin zerikusia duten produktuak dira. Hala, "Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetaarako" partidak % 53,2 egin du behera (240,9 milioi euro); "10 pertsona baino gutxiagoko turismoak" partidak, % 27,7 (257,4 milioi gutxiago), "Salgaiak garraiatzeko automobila" % 37,0 egin du behera (244,7 milioi gutxiago), eta "Automobilentzako zati eta osagarriak", % 32,6 (248,0 milioi gutxiago). Halaber, atzerapen nabarmena antzeman da "Kautxuzko pneumatiko berriak" partidan (-% 23,6 eta 102,2 milioi gutxiago).

2020ko hilotako ranking esportatzailean, Alemania da herrialde hartzaile nagusia, esportatutako guztizkoaren % 16,6ren hartzailea. Alemaniaren ondoren, honako hauek daude rankingean, hurrenkera honi jarraikiz: Frantzia (% 15,5), Estatu Batuak (% 6,7) eta Erresuma Batua (% 6,5). Horrela, lau herrialdeen artean, esportazioen % 45,2ren hartzaile dira.

Euskadiko AErako **inportazioen** metatua, aintzat hartutako aldian, 6.619,5 milioi euro ingurukoa da. Zifra hori urte artean erkatuz gero, 2019ko aldi berean erregistratutakoa baino 2.177,3 milioi baxuagoa dela ikusten dugu. % 24,8ko beherakada hori izan da, zati handi batean, Bizkaiko lurraldean (3.748,0 milioiko balioa duten inportazioak ditu) aldi horretarako % 26,3ko beherakada egon delako, alegia, aurreko urteko aldi berean baino 1.339,5 milioi gutxiago. Halaber, behera egin dute Gipuzkoako inportazioek (-% 22,7 eta 431,9 milioi gutxiago), bai eta Arabakoek ere (-% 22,5

eta 405,9 milioi gutxiago); inportatutakoaren balioa, bi lurralde horietan, 1.471,9 milioikoa eta 1.399,6 milioi eurokoa izan da, hurrenez hurren.

“Produktu energetikoen” inportazioak % 38,6 egin du behera, eta “Produktu ez-energetiko”enak, % 19,7.

Euskadiko AEko ondasunen kanpo-merkataritzak, 2020ko lehen bost hiletan, 1.551,2 milioi euroko saldo positiboa izan du, eta aldeko estaldura-tasari eustea dakar, % 123,4koari.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62